# 2021eko abenduan erregistratutako langabezia

2021ko abenduan zehar LANBIDEko bulegoetan % 2,49 langabe gutxiago erregistratu dira, langabe kopurua 114.845 da, aurreko hilean baino 2.934 gutxiago. 2011 arte langabezia nabarmen hazten zen hil honetan baina 2012 geroztik murriztu egiten da. Lehengo urtean jaitsiera esanguratsua erregistratu zen osasun krisian izandako erorketaren berreskuratzearen ondorioz. Hala ere, duela 2 urte, normaltasun egoeran, hil honetan eman zen jaitsiera urte honetakoa baino apalagoa izan zen.




| | abe. 07 | abe. 08 | abe. 09 | abe. 10 | abe. 11 | abe. 12 | abe. 13 | abe. 14 | abe. 15 | abe. 16 | abe. 17 | abe. 18 | abe. 19 | abe. 20 | abe. 21 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Saldoa | 150 | 5.899 | 747 | 2.910 | 420 | -1.986 | -7.326 | -2.958 | -1.848 | -5.008 | -2.509 | -2.741 | -1.179 | -9.231 | -2934 |

Aurreko urteko abenduarekin alderatuz, 14.395 pertsonetan murriztu da langabezia. 2020ko otsailarekin alderatuz (krisi hasi aurreko hilabetea) 2.382 langabe gehiago zenbatu dira, baina 2019ko abenduarekin alderatuz, 686 gehiago.

- **SEXUA**

Azken hilabetean, gizonezkoen artean gutxiago murriztu da langabezia (-349) emakumezkoen artean baino (-2.585). Gabonetan kanpainaren ondorioz berraktibatzen diren jarduerek emakumezkoen kontratazioa ahalbidetzen dute. Urte arteko saldoari dagokionez, gizonezkoen artean gehiago murriztu da (-7.667) emakumezkoen arten baino (-6.728). Krisi hasieran gizo-

nezkoak izan baziren ere kaltetuenak, errekuperazio erritmo altuagoa daramate; 2020 otsailarekin alderatuz, 64 gizonezko gutxiago daude langabezian, emakumezkoak, ordea, 622 gutxiago. Gaur egun langabeen % 55,4 emakumeak dira.

- **ADINA**

Azken hilabete honetan langabezia jaitsiera adin tarte guztietan izan da, eta jaitsierarik esanguratsuena 25 urte azpikoen artean erregistratu da (-% 10,3). Murrizketa apalena 35-44 adin tartean erregistratu da (-% 0,9). Urte arteko bilakaeran, korrelazio handia ikus daiteke langabeziaren beherakadaren eta langabeen gaztetasunaren artean; 25 eta 34 urte bitartekoen artean % 19,1 murriztu da, 25 urte azpikoen artean % 17,7 murriztu da; 54 urte gorakoen artean % 0,8 hazi da.

- **JARDUERA EKONOMIKOA**

Abenduan langabezia zerbitzu sektorean (-% 3,1) eta lehen sektorean (-% 1,4) murriztu da; industrian (% 2,7) eta eraikuntzan (% 0,3), berriz, hazi egin da. Esperientziarik ez dutenen artean % 5,3 murriztu da langabezia hil honetan. Iazko egoerarekin alderatuz gero, aipatzekoa da Industrian (-% 14,3) eta Zerbitzuetan (-% 11,3) egon den beherakada nabarmena. Lehenengo lan esperientzia izan ez dutenen artean,% 8,5 murriztu da.

Datuak zehatzago aztertuta, azken hilabetean langabeziaren gorakada handiena izan duten jarduerak hauek izan dira:

- 78 Enpleguarekin erlazionatutako jarduerak +491
- 85 Hezkuntza +130
- 25 Produktu metalikoen fabrikazioa +109
- 24 Metalurgia +86
- 29 Motordun ibilgailuen fabrikazioa +55

Aitzitik, abenduan erregistratutako langabeziaren murrizketa izan duten jarduerak hauek izan dira:

- 47 Txikizkako merkataritza -664
- 87 Egoitzetako laguntza -413
- 81 Higiezinen zerbitzuak eta lorezaintza jarduerak -258
- 56 Janari eta edarien zerbitzuak -257
- 86 Osasun jarduerak -236

- **LANGABEZIAREN IRAUPENA**

Hilabete honetan, epe luzeko langabezia 791 pertsonatan murriztu da (-% 1,3) eta epe laburrekoa 2.143 pertsonatan (-% 3,7). Urte osoari begiratuz gero, epe laburreko langabeen artean murrizketa eman da (-% 8,6) eta epe luzekoen artean, aldiz, % 13,5 murriztu da. Krisia luzatzen ari den heinean, iraupen luzeko langabezia nabarmen handitzen ari da; gaur egun 58.405 langabe iraupen luzekoak dira; langabe guztien % 50,9a.

- **LANGABETUEN KOKAPEN GEOGRAFIKOA**

Abenduako bilakaera honako hau izan da: Araban langabezia % 1,2 murriztu da, azaroan baino 241 langabe gutxiago, 19.414 langabe guztira; 2021eko abenduan bilakaera okerrena izan duen lurraldea da. Gipuzkoan % 1,4 murriztu da, 417 pertsona gutxiago daude langabezian azaroarekin alderatuta (langabetu kopuru totala 30.553koa da). Azkenik, Bizkaian, abenduan baino

2.276 langabe gutxiago daude (% 3,4ko murrizketa), langabetu kopurua 64.878 da; hil honetan bilakaera onena erregistratu duen lurraldea izan da.

Urte arteko saldoari erreparatuz Gipuzkoak erregistratu du eboluzio hoberena % 11,27ko murrizketarekin; Bizkaiak jarraitzen dio % 11,22ko murrizketarekin eta azkenik Araban % 10,65 murriztu da.

Hiriburuak aztertuta, Bilbon azken hilean 677 pertsonatan murriztu da langabezia (-% 3,0), Vitoria-Gasteizen 188 pertsonatan murriztu da (-% 1,2) eta Donostian 221 pertsonatan murriztu da (-% 2,9). Murrizketa nabarmenak izan dituzten zenbait eskualde, Ezker Eskualdea (-782), Ibaizabal (-292) eta Gobela (-188) izan dira. Bestalde Urola Erdian (+29), Durangaldean (+25) eta Tolosaldean (+22) erregistratu dira hazkunde nabarmenenak.

Erregistratuko langabezia indize altuenak dituzten udalerriak hauek izan dira: Oion (% 18,9), Sestao (% 16,9), Elantxobe (% 16,1), Balmaseda (% 15,7) eta Alonsotegi (% 15,7%).

- **LANGABEZIA-PRESTAZIOA**

2021ko abenduan 37.883 langabek kobratu dute langabezia-prestazioaren bat, hau da, aurreko hilean baino 1.406 langabe gutxiagok. Langabeen % 33,0k du gizarte-prestazio hori jasotzeko eskubidea. 20.663 langabek jasotzen dute ordaindutakoaren araberako prestazioa, hau da, langabeen % 18,0 dira horiek. 17.220 langabek (% 15,0), berriz, langabezia prestazioa jasotzen dute. Gipuzkoa da babes tasa handiena duen lurraldea (% 35,1), Araban % 32,3koa da eta Bizkaian % 32,0koa.

Aurreko hilarekin alderatuz, langabezia estaldura-tasa 0.4 puntu murriztu da; aurreko urtearekin alderatuz 0,3 puntu hazi da.

Abenduan ordaindutakoaren araberako prestazioa jasotzen duten pertsonen kopurua murriztu egin da eta langabezia prestazioa jasotzen duten pertsonen kopurua baita ere.

- **JATORRIA**

Langabeen % 16,2 (18.561 lagun), atzerritarrak dira. Aurreko hilarekin alderatuta, langabezia % 0,8 murriztu da atzerritarren artean, aldiz, bertakoen artean % 2,8. Urte arteko erlazioan, atzerritarren arten langabezia % 9,2 murriztu da, eta bertakoen artean % 11,5.

Langabe atzerritarren % 34,7 Afrika iparraldekoak dira, % 22,1 Latinoamerikatik datoz, % 18,5 Europako Esparru Ekonomikotik, % 14,3 Saharaz hegoaldeko Afrikatik, eta % 5,9, azkenik, Asiatik. Abenduan Latinoamerikatik etorritako pertsonen artean murriztu da gehien langabezia (-188); Saharaz hegoaldeko Afrikatik etorritakoen artean, aldiz, hazi da gehien (+61).

- **IKASKETA MAILA**

Langabeen % 61,0k (70.039 lagun), oinarrizko ikasketak ditu, gehienez ere. Azken hilean, oinarrizko prestakuntza dutenen artean 1.055 langabetu gutxiago erregistratu dira. Talde horretan, % 1,5 murriztu da langabezia azken hilean. Azken urtean % 9,6 murriztu da langabezia talde honetan.

Batxilergo-titulua duten pertsonak langabeen % 8,8 dira. Talde horretan % 3,6 murriztu da langabezia azken hilean, eta azken urtean % 13,6 murriztu.

Lanbide-heziketa ikasi eta langabezian dauden lagunak 20.862 dira, hau da, langabeen % 18,2. Talde hau abenduan zehar % 4,3 murriztu da, eta azken urtean % 12,3 murriztu da.

Azkenik, langabeen % 12,1ek (13.846 lagun), unibertsitateko ikasketak ditu. Ikasketa maila hau duten langabetuen artean % 4,0 murriztu da langabezia azken hilabetean eta % 15,2 murriztu azken urtean.

- KONPARAKETA ESTATUKO DATUEKIN

Estatuan 76.782 langabe gutxiago daude aurreko hilean baino (% 2,41eko murrizketa). Guztira 3.105.905 langabe daude erregistratuta; EAEn, berriz, % 2,49 murriztu da. EAEko mugakide diren autonomia-erkidegoetan langabeziak ondorengo bilakaera izan du: Nafarroan % 1,02 hazi da, Errioxan % 0,38 murriztu, Kantabrian % 1,71 murriztu da eta Gaztela eta Leonen % 0,24 murriztu. Katalunian % 0,18 murriztu da eta Madrilen % 6,25 murriztu.

EAEn langabezia azken urtean % 11,14 murriztu da eta Espainiar Estatuan % 20,12.

### Lan-eskatzaile langabeak 2021eko abenduan

| | Aza-2021 | Urr-2021 | Saldoa | Bil % |
|---|---|---|---|---|
| **SEXUA:** | | | | |
| GIZONEZKOAK | 51.231 | 51.580 | -349 | -0,68 |
| EMAKUMEZKOAK | 63.614 | 66.199 | -2.585 | -3,90 |
| **25 URTEZ AZPIKOAK:** | | | | |
| GUZTIRA | 8.818 | 9.835 | -1.017 | -10,34 |
| GIZONEZKOAK | 4.639 | 5.073 | -434 | -8,56 |
| EMAKUMEZKOAK | 4.179 | 4.762 | 12 | -12,24 |
| **25-44 URTE:** | | | | |
| GUZTIRA | 45.228 | 46.019 | -791 | -1,72 |
| GIZONEZKOAK | 19.402 | 19.179 | 223 | 1,16 |
| EMAKUMEZKOAK | 25.826 | 26.840 | -1.014 | -3,78 |
| **45 URTEZ GORAKOAK:** | | | | |
| GUZTIRA | 60.799 | 61.925 | -1.126 | -1,82 |
| GIZONEZKOAK | 27.190 | 27.328 | -138 | -0,50 |
| EMAKUMEZKOAK | 33.609 | 34.597 | -988 | -2,86 |
| **SEKTOREA:** | | | | |
| NEKAZARITZA ETA ARRANTZA | 2.632 | 2.669 | -37 | -1,39 |
| INDUSTRIA | 13.708 | 13.352 | 356 | 2,67 |
| ERAIKUNTZA | 7.717 | 7.694 | 23 | 0,30 |
| ZERBITZUAK | 76.568 | 79.043 | -2.475 | -3,13 |
| AURREKO ENPLEGURIK GABE | 14.220 | 15.021 | -801 | -5,33 |
| **LURRALDE HISTORIKOA:** | | | | |
| ARABA | 19.414 | 19.655 | -241 | -1,23 |
| BIZKAIA | 64.878 | 67.154 | -2.276 | -3,39 |
| GIPUZKOA | 30.553 | 30.970 | -417 | -1,35 |
| EAE | 114.845 | 117.779 | -2.934 | -2,49 |

## ESKUALDEKO BILAKAERA

| | Langabetuak | Erregistratutako langabezia indizea | Aurreko hilabetea | | Aurreko urtea | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Saldoa | Bil % | Saldoa | Bil % |
| Bidasoa Behera | 4.027 | 10,9% | -26 | -0,64 | -347 | 4.027 |
| Oarsoaldea | 3.513 | 9,7% | -35 | -0,99 | -324 | 3.513 |
| Donostia-S.Seb. | 7.367 | 8,3% | -221 | -2,91 | -1.312 | 7.367 |
| Donost.Mendebaldea | 3.070 | 8,3% | -12 | -0,39 | -293 | 3.070 |
| Tolosaldea | 1.895 | 8,0% | 22 | 1,17 | -301 | 1.895 |
| Urola Erdia | 1.216 | 7,9% | 29 | 2,44 | -175 | 1.216 |
| Goiherri | 1.560 | 7,3% | -22 | -1,39 | -224 | 1.560 |
| Deba Garaia | 2.470 | 8,2% | -39 | -1,55 | -236 | 2.470 |
| Deba Behera | 2.733 | 10,3% | -52 | -1,87 | -245 | 2.733 |
| Urola Garaia | 1.060 | 8,8% | -44 | -3,99 | -181 | 1.060 |
| Urola Kosta | 1.642 | 7,3% | -17 | -1,02 | -242 | 1.642 |
| **GIPUZKOA** | 30.553 | 8,7% | -417 | -1,35 | -3.880 | 30.553 |
| Vitoria-Gasteiz | 14.980 | 11,7% | -188 | -1,24 | -1.840 | 14.980 |
| Aialako Ibarra | 2.278 | 12,0% | -9 | -0,39 | -236 | 2.278 |
| Arabar Errioxa | 695 | 12,6% | -25 | -3,47 | -74 | 695 |
| Arabako lautada | 711 | 9,4% | -16 | -2,20 | -101 | 711 |
| Gorbeia inguruak | 316 | 6,7% | 9 | 2,93 | -24 | 316 |
| Arabako Ibarrak | 400 | 7,8% | -7 | -1,72 | -59 | 400 |
| Arabako Mendialdea | 102 | 6,5% | 0 | 0,00 | -26 | 102 |
| **ARABA** | 19.414 | 11,5% | -241 | -1,23 | -2.313 | 19.414 |
| Gobela | 4.627 | 9,1% | -188 | -3,90 | -598 | 4.627 |
| Txorierri | 2.150 | 9,4% | -146 | -6,36 | -316 | 2.150 |
| Uribealdea | 3.025 | 9,2% | -129 | -4,09 | -382 | 3.025 |
| Durangaldea | 3.498 | 9,4% | 25 | 0,72 | -438 | 3.498 |
| Busturialdea | 2.205 | 10,3% | 1 | 0,05 | -243 | 2.205 |
| Lea-Artibai | 1.058 | 8,8% | 21 | 2,03 | -117 | 1.058 |
| Enkarterriak | 1.926 | 12,5% | -117 | -5,73 | -249 | 1.926 |
| Arratia-Zornotza | 1.565 | 8,9% | 16 | 1,03 | -117 | 1.565 |
| Arratia-Nerbioi | 1.300 | 10,0% | -11 | -0,84 | -150 | 1.300 |
| Bilbo | 22.131 | 13,3% | -677 | -2,97 | -3.011 | 22.131 |
| Ezkerraldea | 16.860 | 13,6% | -782 | -4,43 | -1.992 | 16.860 |
| Ibaizabal | 4.447 | 11,1% | -292 | -6,16 | -558 | 4.447 |
| **BIZKAIA** | 64.878 | 11,7% | -2.276 | -3,39 | -8.202 | 64.878 |
| **EAE** | 114.845 | 10,7% | -2.934 | -2,49 | -14.395 | 114.845 |

* Bizkaia eta Arabako eskualdeen batura ez dator bat lurraldeko totalarekin, Orduña udalerria Bizkaikoa izanik Arabako Aialako Ibarra eskualdean kokatzen baita.

** Tolosaldeko, Arabar lautadako eta Durangaldeko datuak ez dira fidagarriak administrazio-kudeaketa arrazoiengatik. Arrazoi horiek Abaltzisketako, Alegria-Dulantziko eta Abadiñoko erregistratutako langabetu kopurua haztea ekarri du, helbide osatu gabe zegoen kasuetan.